

HIZKUNTZAREN ERABILERA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO HARREMANETAN: EGUNEROKO TESTUINGURUAK ETA TESTUINGURU JUDIZIALAK

Tesiaren egilea: Garbiñe Ortiz Anzola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Gizarte-Psikologia eta Portaera-Zientzien Metodologia

Tesi-zuzendaria: Jose F. Valencia Garate

Tesiaren laburpena:

Gizarte-psikologiaren jakintza-alorretik egindako lan honetan, hizkuntzaren erabilerari heltzen zaio, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna iraunarazteko eta gizartean zabaltzeko tresna gisa aztertuta. Genero-estereotipoek desberdintasuna justifikatzen dute eta hizkuntzaren bitartez hedatzen dira komunikazio sozialean. Horrela, estereotipoak egonkor iraute horretan hizkuntzak nola laguntzen duen aztertzen da ikerketa-lan honetan. Izan ere, errealitatea zer den eta nolakoa den azaltzeko eta ezagutza partekatua sortzeko ahalmena du hizkuntzak.

Hizkuntzaren izate soziala eta intentzionala abiapuntu hartuta, bizitza soziala hobeto ulertzeko hizkuntzak ematen duen aukerari buruz jardun da, hizkuntzaren erabileraren eta pentsamendu sozialaren arteko lotura aintzat hartuz. Helburua da azaltzea genero-estereotipoak hizkuntzaren erabileran nola ezagutarazten diren eta, ondorioz, hedatutako ezagutza nola bihurtzen diren.

Helburu horrekin, bost ikerketa enpiriko egin dira. Horietariko hiru ikerketatan, *eguneroko testuinguruetan* topa daitezkeen egoerak erabili dira estimulu gisa; nortasun-bereizgarrietan oinarritutako estereotipoak, genero-rolarekin lotutako estereotipoak eta desiragarritasun sozialarekin lotutako estereotipoak barneratzen dituzten egoerak, hain zuzen, horiek komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza aztertzeko asmoz. Beste bi ikerketak *testuinguru judizialean* kokatzen dira; batean, laborategian sortutako epaiketa-egoera erabili da, eta bestean, benetako epaiketarako agiriak aztertu dira. Hizkuntzak akusatuen portaerari buruz zer nolako azalpenak barneratzen dituen aztertzea da azken ikerketa hauen helburua: akusatuaren generoaren arabera eta lekukoaren helburuen arabera, alde egitea ala aurka egitea.

Estereotipoak iraunaraztean hizkuntzak duen zeresanaz jardutean, azterketa pragmatikoa erabiltzen da. Hain zuzen, hizkuntzaren egiturazko ezaugarriak (hizkuntzaren abstrakzio mailari) eta horien erabilerari lotzen zaie analisia, ez diskurtsoaren esanahiari edo edukiari. Horrela, abstrakzio mailan ezberdinak diren lau hizkuntza-kategorien erabilera erlatiboa aztertzen da: ekintza-aditz deskribatzaileak (*ikusi, hitz egin*), ekintza-aditz interpretatzaileak (*mehatxatu, lagundu*), egoera-aditzak (*miretsi, gorrotatu*) eta adjektiboak (*koldarra, ausarta*). Ikerkuntzak egiaztatu duenez, estereotipoarekin bat egiten duten portaerak era abstraktuan

deskribatzen dira, eta horrek alde zuzeneko igurikimena indartzen du. Izan ere, hizkuntza abstraktuan deskribatutako portaerak (*Ane koldarra da*) egonkorak, iraunkorak, berriro gertatzeko aukera handikoak direla eta aktorea deskribatzen dutela hautematen da. Estereotipoarekin bat ez datozen portaerak, aldiz, era konkretuan deskribatzeko joera dago, ekintza isolatuak direla aditzera emanaz. Hizkuntza konkretuan deskribatutakoak (*Anek Jon bultzatu du*) gertaera isolatuaren, zehatzaren irudia hartzen du, eta, testuinguruari lotuta interpretatzen denez gero, ez du estereotipo-moldea hartzen. Beraz, alde zuzeneko uste edo igurikimenez gertaera deskribatzeko hautatzen den hizkuntza baldintzatzen dute, eta hizkuntzaren erabilera horrek gertaerari buruzko interpretazioa ere baldintzatzen du, zikloa osatuz.

Esanahia eman edo sortzeaz gain, hizkuntzaren bidez zerbait gehiago ere egiten dugu: besteekin ditugun harremanak maneiatzen ditugu, errealitatea, gertaerak edo portaerak azaltzen ditugu, eta horien zergatiak eman eta denboran eta espazioan kokatzen ditugu. Alde horretatik, hizkuntza erabiltzeak ondorioak ditu pertsonen eta taldeen arteko harremanetan, eta oro har, mundu sozialean, errealitateaz dugun irudikapena ez baita erabiltzen dugun hizkuntzatik askea.